

OSPITALE PUBLIKOAREN ALDEKO KONPROMISOA

Tolosak beti izan du erreferentziazko klinika bat: Asunción Klinika.

80. eta 90. hamarkadetan, Tolosaldeko alkateen mugimenduak lortu zuen itun bidez osasun egitura hura mantentzea. Itunpeko formula honek, denbora honetan, eskualdeko herritar orori EAeko beste edozein hiritarri eskainitako osasun arreta zerbitzuaren pareko zerbitzua hemen bertan, Tolosan, jaso ahal izatea bermatu dio, oinarri dituen: DOAKOTASUNA, UNIBERTSALTASUNA eta KALITATEA.

Egindako ibilbideak eta Osakidetzako antolaketa berriak ahalbideratu dute, orain, bere zerbitzuen koordinazio eta funtzionamendu integralerako Tolosaldeko ospitale publikoa izatea eta hortaz, horren aldeko apustua egin du Eusko Jaurlaritzak eta, baita udal gobernu talde honek ere.

Tolosarrei argi adierazi nahi diegu ospital publikoarekiko dugun konpromisoa irmoa dela eta proiektu hau aurrera eramateko bermerik garbiena da, honetan eskumena duenak, Eusko Jaurlaritzak, proiektua gauzatu duela adieraztea eta legegaldirako programan jasota izatea. Hori da ospitale publikoa egiteko benetako bermea.

Norbere eskumenetik, eta elkarlanean, proiektua aurrera eramateko lanean dihardugu lehen egunetik. Udal honi dagokio, ospitale publikoa Tolosan kokatzeko zoruen azterketa egitea eta argi eta garbi diogu gure helburu eta lehentasuna dela ospitale berria Tolosan kokatzea, horixe baita, gure aburuz, aukerarik zentzuzkoena, Tolosak duelako biztanle kopururik handiena. Eskualdeburu izateagatik, beste hainbat alorretan ere ematen diogu zerbitzua Tolosaldeari, hezkuntzaren esparruan, gizarte zerbitzuetan, epaitegien, hedabideen, euskalduntzearen, nekazal-ganbaren eta genero-berdintasun esparruan, osasun publikoaren alorrean eta baita ere zerbitzu espezializatuetan: kiroldegia, suhiltzaileak, segurtasun zerbitzuak, etab.

Beraz, Tolosako udalak ez du onartuko Tolosa ez den beste udalerrri batean kokatzea osasun zerbitzuak, aukerak izanda ospitale berria bertan kokatzeko. Utzikieriaz jokatu luke udal gobernu honek, aukera hori baliatuko ez balu Tolosako eta tolosaldeko herritar guztien mesedetan.

Eskualdeko ospitalea izanik, noski, Tolosadeko beste herrietako biztanleek erraztasunez eta komunikazio-bide egokien bidez iristeko gunea aukera beharko da ospitalea ezartzeko. Udal gobernu honek horren alde egingo du, zalantzarik gabe.

Zoruen azterketaren lehen fasea amaituta, orain, 4 aukera ditugu mahai gainean. Bigarren fasea ere abiatu dugu behin betiko kokalekua zehazteko.

Behin kokapenaren gaia bideratuta, Jaurlaritzari dagokio osasun ereduaren programa garatzeko ardura, Osasun Sailak dituelako adituak eskualdeko behar dituen zerbitzuez jarduteko. Beraz, bakoitzak berea egin behar du, horretan baitu eskumena, eta horretan baita aditua.

Helburua argi dugu, jarraitu beharreko bidea ere bai eta lanean jarraituko dugu etorkizun hurbilean ospitale publikoa izan dezagun eskualdean, hori bai, Tolosan. Hori baita gure helburu eta lehentasuna, Tolosako eta tolosarren udal ordezkari gisa.

Gauzak horrela, honako konpromisoak hartzen ditu udalbatza honek:

1. Tolosako Udalak tolosarren interesen defentsan eta beren beharrei erantzuteko lanean jarraitu du gainerako erakundeekin elkarlanean, norbere eskumenak errespetatuz.
2. Epe laburrean Ospital publikoaren kokapena zehazteko bigarren faseari amaiera emateko eta ondoren HAPOan beharrezkoak diren aldaketak egiteko konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak.
3. Tolosako Udalak behin betiko kokapenaren inguruko informazioa Eusko Jaurlaritzarekin, gainerako alderdi politikoekin eta herritarrekin partekatuko du.